



**araba
euskaraz '26**

Taupadak berpiztu!

AMURRIO

«Taupadak berpiztu!» lelopean, Araba Euskaraz herrietara itzuli da, jaiegun bat baino askoz gehiago izateko asmoz. Oraingo honetan Amurrioko Aresketa ikastolak hartu du antolaketaren ardura, euskararen taupadak indartu eta herriar guztiengana iristeko helburuarekin; ez soilik ikastolan, baizik eta kalean, plazan eta eguneroko bizitzan.

Araba Euskaraz 2026, euskararen taupadak arabar herrietara itzuli dira

ERREPORTAJEA

Ainhoa AROSTEGI | AMURRIO

Gasteizen lau edizio segidan egin ondoren, Araba Euskaraz lurraldeari eta tokiko komunitateei lotuago dagoen formatu batean datorkigu. Ikasurte oso honek euskararen orainaz eta geroaz hausnartzeko balio izan du, bai eta euskara bizirik mantendu duten lotura komunitarioak indartzearen garrantziaz gogeta sakona egiteko ere. Tesuinguru horretan, Amurrio aukeratzea ez da kasualitatea izan. Itzulera horrek herrietara, auzolanera eta landa inguruneetara garamatza, leku horiek euskararen biziraupenean eta transmisioan bete duten ezinbesteko zeregina aitortzeko.

Antolaketaren pisu handiena Aresketa ikastolak hartuko badu ere, beste zazpi ikastolak ere hor egon dira Amurrioko ikastolak nahi eta behar izan duen guztietan esku bat luzatzeko.

Antolaketa tradizionalera itzuli dira, beraz, eta hauek dira arrazoiak: Aresketa ikastolako komunitateak nahikoa indar eta gogo izan dituela Araba Euskaraz antolatzeke eta Amurrioren ospatu nahi



izan dutela Araba Euskaraz. «Araba Euskaraz elkarrekin antolatzen hasi ginenean adierazi genuen ez genuela formatua eta lekua betiketzeko asmorik». Era berean, aurtengoa betiko formatura itzuli den arren, ez du esan nahi hurrengo edizioetan berriro ere zortziek batera antolatzeke aukera baztertzen dutela.

«Taupadak berpiztu!» da aurtengo Araba Euskararentzat aukeratutako leloa. Taupadak metafora bat baino askoz gehiago dira. Zerbait bizirik dagoen seinale ditugu. Eta horixe da, hain zuzen ere, edizio

Azken lau urteetan Olarizuko zelaietan antolatu ondoren, aurtengo Amurriora egingo du jauzi Araba Euskaraz jaiak.
Endika PORTILLO | FOKU

honek zabaldu nahi izan duen mezua: euskarak taupaka jarraitu behar duela eguneroko harremanetan, gure herri eta hirietako kaleetan, familia zein lagunartean, Arabako gizartearen topaguneetan...

Izan ere, azterketek eta datuek adierazten dute euskararen erabilera erritmoa galdu duela, ezagutza eta erabilera deskonpasatuta doazela. «Korronte zuzeneko txinparta bat behar dugu bihotzera», nabarmendu dute.

Antolatzaileek aipatu dituzten helburuek kezka hori islatzen dute. Alde batetik,

hizkuntza ezagutzen eta erabiltzen dutenen konpromisoa indartu nahi da. Bestetik, oraindik euskarara hurbildu ez diren, edota azken urteotan Euskal Herrira iritsi diren pertsonekin zubi zabalak eraiki nahi dituzte, euskara guztion ondarea dela ozen eta garbi aldarrikatzeko.

«Euskaldunok euskara darماغu bihotzean, eta taupadak behar ditugu euskara bihotzetik gogora nahiz mihira eramateko», esan zuten antolatzaileek aurtengo edizioaren aurkezpenean, hizkuntzarekiko atxikimendu emozionala

Lizarralde soinua

TXALAPARTA S.L.

**AUDIO PROFESIONALA
ETA MEGAFONIA.**

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
945 226 977 · GASTEIZ

bai euskarari zerbitzua euskaraz

AMETS

WWW.AMETSSL.COM

DEI IEZAGUZU: 94 672 24 53

**DOITASUNEZKO
MEKANIZATUAK**

SGS SGS SGS

in @

eguneroko erabilera erreal bihurtu nahi duen egitasmo baten filosofia laburbiltzen duen hausnarketa eginez.

Azken hilabeteotan, kirol topaketek, kultura jarduerak eta musika kontzertuek Araba Euskararen muina eraman dute Amurrio, Aiaraldea eta Gasteizko bazterretara, euskararen sustapena ezin dela egutegiko egun bakar batera mugatu gogoratu nahi duen programazio askotariko eta zabal batean.

LAU HAMARKADA

Amurrioren egindako lehenengo Araba Euskararen berrogeigarren urteurrenarekin bat egiteak, gainera, garrantzi berezia ematen dio edizio honi. 1986an, "Arabaren bultza euskararen martxa" lelopean antolatu zen ekitaldi hura. Egun, lau hamarkada geroago, erronka desberdinak daude, baina helburu bera darabilte: euskararen presentzia gizar-tean indartzea eta belaunaldi berriei gure hizkuntzaren transmisioa bermatzea.

«Gizartearen loturak berreraiki, nortasuna landu, elkartzasuna bultzatu eta euskararen taupada berpiztea dugu helburu», azpimarratu zuten edizio honetako antolatzaileek. Sustriak ahaztu gabe etorkizunari begiratzen dion festa baten arima laburbiltzen duen esaldia.

Antolakuntzak bereziki azpimarratu nahi izan ditu, halaber, jaiaren zeharkako baliokak: ingurumenarekiko erabateko konpromisoa, beira eta alkoholodun edariak sartzeko debekua zirkuituan eta, batez ere, jaiak aske eta erasorik gabe gozatzeko aldarria.

Gaur, milaka lagun bilduko dira Amurrioko kaleetan, festa bat baino zerbait gehiago ospatzeko. Hizkuntza bat, kultura bat, komunitate bat, azken finean. Araba Euskarazek Amurrio euskararen eta euskal kulturaren topagune handi bihurtzeko gonbidapena luzatu die Euskal Herri osoko herritarrei.

ARESKETA IKASTOLA, 50 URTEKO EUSKARAREKIKO KONPROMISOA

Aresketa ikastolaren historia 1977an abiatu zen, Amurrioko familia talde batek garai hartan zaila zirudien helburu bat gauzatzea erabaki zuenean: seme-alabei kalitatezko euskarazko hezkuntza eskaintzea. Lehenengo eskolak Mendiko Lagunen lokaletan eman ziren eta, ondoren, zenbait modulu prefabrikatutan.

Hasierako zailtasunak zailtasun, proiektua handituz joan zen familien, irakasleen eta laguntzaileen ahalegin bateratuari esker. Mugarri garrantzitsuenetako bat 1989an iritsi zen, "Adreiluaren Martxa" kanpainarekin. Herri mobilizazio horri esker, egoitza propioa eraikitzeko dirua bildu ahal izan zen. Handik urtebetera, ikastola Aresketa auzora lekualdatu zen, eta bertatik hartu zuen gaur egungo izena.

Ikastetxeak beti egin du hezkuntza-berrikuntzaren aldeko apustua. 1991n "Kili-Kolo" jarri zuen martxan, bi urteko haurrentzako gela, eta 1997an "Tantaka" izeneko haurtzaindegiaren kudeaketa bere gain hartu zuen, bere hezkuntza proiektua haurtzaroko lehen etapetara zabaltzeko.

Bere ibilbidean zehar, Aresketak Araba Euskararen hainbat edizio antolatu ditu (1986, 1996, 2005, 2013 eta, orain, 2026), eta hitzordu hori funtsezko tresna bihurtu da eskualdean instalazioak hobetzeko, proiektu berriak bultzatzeko eta euskara indartzeko. Tartean, covidaren pandemiak harrapatu zituen. Urte hartako ekainean egin behar zuten bosgarren Araba Euskaraz, baina birusak sortutako egoerak galarazi egin zuen, nahiz eta pandemiako baldintzak leuntzen ari zirela-eta ospakizun xumeren bat edo beste antolatzeko aukera izan zuten.

Egokitzeko gaitasuna, beraz, bere historiaren parte da. 2003ko elurte handiaren ondoren espazioak berrantolatu zirenetik 2018an hasitako berrikuntza metodologiko eta arkitektonikoraino, ikastolak une



Eraikin duin bat lortzeko asmoz, 1989an abian jarritako «Adreiluaren martxa» kanpaina. GARA

bakoitzeko erronkei erantzuten jakin du, bere funtsa ahaztu gabe.

Gaur egun, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 600 ikasle baino gehiago, 400 familia inguru eta dozenaka profesional biltzen dituen

hezkuntza kooperatiba da Aresketa ikastola. Sortu eta ia mende erdira, bere sorreraren helburuari leial jarraitzen du: kalitatezko hezkuntza euskaraz eskaintzea eta Amurrio eta Aiaraldeko garapen sozial, kultural eta linguistikoari laguntzea.



Cándido Besa
UPATEGIA



candidobesa.com
652 732 986 • 685 738 193
Villabuena de Álava.
ESKUERNAGA

ITXASO UGARTE OZAETA Amurrioko Aresketa ikastolako zuzendaria

400 boluntario baino gehiago, herri oso bat inplikatua, helburu bat amankomunean: euskarari bultzada berri bat ematea Aiaraldean. Itxaso Ugarte Ozaetak, Aresketa ikastolako zuzendariak, Araba Euskaraz 2026 nola sortu zen azaldu digu eta Arabako euskararen orainaz eta etorkizunaz hausnartu du.

«Taupaka dirauen bihotza bizirik dagoen herriaren seinale da»

A.A. | AMURRIO

Zer esanahi du zuen ikastolarentzat aurtengo Araba Euskaraz hartzeak?

Ilusio eta ardura handiz ekin diogu antolaketari. Honelako jai batek eskatzen duen lana ez da nolanhikoa eta muskulua erakutsi beharra dago. Gogo eta auzolana ezinbestekoak izan dira ekimena aurrera atera ahal izateko. Ekitaldi mordo antolatu dugu urte osoan zehar, baina, tamalez, gure hizkuntza normalizatu ez dagoen bitartean, oso garrantzitsua da honelako elkarguneak mantentzea, euskarari eta euskal hiztunoi arnaguneak ematen dizkigutelako, gure hizkuntza eta gure kultura erdigunean jarrita. Euskarari Amurrioren, Aiaraldean eta Araban sostengua ematen dion beharrezko aldarrikapen tresna da guretzat Araba Euskaraz.



Aurten herrietara itzuli da jai, Gasteizen hainbat edizio egin ondoren. Zer sinbolizatzen du itzulera honek?

Azken lau urteotan Olarizun ospatu dugu Arabako ikastolen festa handia herrialdeko zortzi ikastolok antolatutako ekimen bateratuan. Hala erabaki genuen pandemiaren ostean egindako hausnarketa prozesu batean. Iaz, 2026ko edizioan Aresketa ikastolak lekukoa hartuko zuela erabaki zen kooperatibak urtero egiten duen ohiko bilkuran. Araba Euskaraz gure ikastolari antolatu zezagokiola ebatzi eta gero, aho batez onartu genuen ikastolako asanbladan jaiak Amurriora bueltatu behar zuela, Aiaraldean indarra eta eragina eduki zitzan.

Zer ekarpen egin diezaioke herri txikiak Araba Euskarazi eta, oro har, euskarari?

Herri txikietan, hiri handien aldean, harreman sare estuagoak daude, eta horrexegatik euskara familia edo lagunartean, kirol talde edota elkarreetan erabiltzea errazagoa izan daiteke. Inplikazio handiagoa egon daiteke. Beraz, euskararen erabilera areagotzeko konpromiso irmoagoa ere. Herri txikiak euskara eguneroko bizitzaren hizkuntza bihur dezakete gauzak ongi egingez gero.

Noiz hasi zineten edizio hau prestatzen eta nolako izan da antolakuntza prozesua?

Bastida ikastolak lekukoa pasatu zigun eta, jaso bezain pronto, gure makineria mugitzen hasi ginen, gurpilari eragiten, gauzak abian jartzen, nonbait. Arestian esan bezala, lan galanta egin behar izan dugu, ez soilik egun horretan, urte osoan baizik. Hasieran, talde eragile bat sortu genuen, eta lan bakoitzaz arduratzen den batzordeak osatu dira ondoren. Komunitatearen, herritarren zein eragileen artean, auzolanean, sare osoa josi dugu eta norberak zegoen tokitik, elkartasun osoz, bere aletxo jarri du.

ITURRIETA
SAGARDOTEGIA

Reservas en: www.iturrieta.eus

Bº Arraga, 2 /Aramaio
t 685 72 15 93
info@iturrieta.eus · www.iturrieta.eus

ENEK

TREBIÑU
sagardotegia

Askartza (Trebina)
www.trebinu.com
945 24 48 52 - 657 73 65 99

Kuartango
SAGARDOTEGIA

Zuhatsu-Kuartango 21
t.699 747 730 · 945 362 683

TXOTX EGIN!!

Arabako
sagardotegiak

Servicio de autobús

Zenbat pertsonak hartu dute parte antolakuntzan eta zer eginkizun bete dute familiek eta boluntarioek?

Apurka-apurka osatzen eta betetzen joan den taldea izan da. Hamabost laguneko talde egonkor batetik hasita, pixkanaka-pixkanaka boluntarioak gehitzen joan dira, eta ospakizunaren egunean 400 pertsonak baino gehiagok lagunduko dute dena primeran irten dadin. Ikasleak ere egitasmo honen parte aktiboak izan dira, jakina. Txikienek abestian zein bideoak parte hartu dute, eta nagusien artean inguruko nondik norakoak azaltzen aritu izan dira podcastak zein bideo bildumak prestatuz.

Zer esanahi dute aurtengo leloak eta logoak, zer mezu helarazi nahi duzue?

Leloa Aresketa ikastolako komunitateak aukeratu zuen ikastolako hainbat kidek landutako proposamenen artean. Komunitatean euskararen egoera larritzat jo genuen eta, berrindartze prozesu baten beharraz oharturik, hori islatzen zuen leloa hautatu zen: geldirik dagoen bihotzaren "taupadak berpiztu" beharrean gaude.

Logoa bihotz bat da, txinparta batek zeharkatuta, elektrokardiograma batek gaixoa berpizteko duen funtzioaren erakusgarri gisa. Taupadak erritmoa markatzen dute; taupadak esaten digute bihotza martxan dugula; taupadak adierazten dute bizirik gaudela.

Araba Euskararen abestia edizio bakoitzeko ikur ezagunetako bat izan ohi da. Zein esanahi du aurtengoak?

Igon Olaguezagaren eta Txiki Loraren "Taupadak berpiztu!" abestia euskararen aldeko aldarria egiten du musika estilo askotariko eta dantzagarriak erabiliz. "Taupadak berpiztu!" abestiaren letrak deiar zuzena egiten dio euskara bizibe-



ARGAZKIAK: ENDIKA PORTILLO | FOKU

rritzeko beharrari, herriaren bihotzaren taupada kolektiboa berpizteko beharrari, alegia. Kantaren hitzek hausnarketa sakona egiten dute euskararen egoeraren inguruan. 1960ko eta 1970eko hamarkadetakoa berpizkundetik hasita («Nondik gatzoz ta nora goazen»), gaur egungo geldialdi zantzuei aurre egiteko garrasi egin arte («ez dezagun ahaztu zein den gure bidaia»). Aldi berean, abestiak euskara heriotzatik normaltasunetik baino gertuago dagoela ohartarazten digu, eta dei egiten du erakutsi behar ditugun «gogoia eta kuraia»-ri eusteko.

Aiaraldeko hamabi ikastetxe eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Hezkuntza Manifestua aurkeztu dute euskararen erabilera indartzeko. Zure ustez, zein da gaur egun euskarak Araban duen erronka nagusia?

Manifestuan hezkuntza sektoretik adierazi nahi izan dugun bezala, euskalduntzeak eta

«TAMALEZ, GURE HIZKUNTZA NORMALIZATUTA EZ DAGOEN BITARTEAN, OSO GARRANTZITSUA DA HONELAKO ELKARGUNEAK MANTENTZEA, EUSKARARI ETA EUSKAL HIZTUNOI ARNASGUNEAK EMATEN DIZKIGUTELAKO»

euskal hiztun aktibo izateak ez du soilik lotura izan behar hezkuntza formalarekin, bestela akats batean eroriko ginateke. Euskal hiztun aktibo izateak esan nahi du eguneroko bizitzan euskaraz aritzeko aukera eta arnasmuneak izatea, aldeko giro egoki bat. Jolasteko, barrez lehertzeko, mintzatzeko, maitemintzeko... Euskarak tresnak eskaini behar dizkio jendeari. Haur edo nerabe batek ikastetxe barruan ematen dituen orduak, urte osoko ikuspegitik hartuta, oso murrizak dira. Ikastetxetik kanpo ez badago beste aldea eusten duen euskarririk, beste erakargarririk, oso zaila dugu euskalduntzarekin aurrera egitea. Modu askotan joka genezake hori bideratzeko, baina denon ardura da, gizarte osoarena, hain zuzen ere.

Askotan esaten da euskararen ezagutza handitu dela, baina erabilera ez dela neurri berean hazi. Zergatik gertatzen da hori?

Euskara "ardatz" bezala hartzen delako eta, berez, euskara oinarria da. Euskarak jatorria, oinarria eta hedatzen doan sarea izan behar du. Euskararen erabilera beharra sortu behar da, instituzioetatik hasita eta gizartera zabalduz. Euskarak arlo guztietan egon beharko luke presente eta, horretan, erantzukizunez eta arduraz jokatu beharko lukete Euskal Herriko hiru administrazioek eta tokian tokiko instituzioek.

Zer mezu bidali nahi diezu aurtengo Araba Euskararen parte hartuko duten guztiei?

Batez ere, eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotz-bihotzetik, haien laguntzari esker aurrera jarraitzeko «gogoia eta kuraia» izango ditugulako. Eta bukatzeko, euskaraz aritu gaitzela eskatu nahi diegu, gure hizkuntzaren eta gure kulturaren taupadak berpizteko. Taupada dirauen bihotza bizirik dagoen herriaren seinale ezin hobea delako.

GU RE BASERRIAK, BEHIAK, ESNEA.



EUSKAL HERRIA
esnea

www.euskalherriaesnea.com
t. 618 829 964 · arreta@euskalherria.com

Aiaraldeak indarrak batu ditu euskararen atzerakada geldiarazteko

Aiaraldeko hamabi ikastetxek, Euskalgintza Kontseiluarekin batera, «Euskararik gabe ez gara» manifestua sinatu dute, euskararen atzerakadaz ohartarazteko asmoz. Eskoletan, familietan zein erakundeetan neurri zehatzak hartzea eskatzen dute, gure hizkuntzaren eguneroko erabilera sustatzeko.

ERREPORTAJEA

A.A. | AMURRIO

Eskualdeko hezkuntza komunitateak urrats bateratua egin du Aiaraldean: hamabi ikastetxek, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin batera, «Euskararik gabe ez gara» izeneko testua aurkeztu dute, euskararen erabilerak eskualdean bizi duen egoeraz ohartarazteko, eta konpromiso zehatzak adosteko. Ekimenak helburu garbia du: eguneroko bizitzan euskararen presentzia eta transmisioa indartzea, eskolatik harago, gizarte osoari zabalduz.

Ikastetxeek honakoa esan dute: «Euskalduntzea arriskuan ikusita, konpromiso irmoak hartzea erabaki dugu», eta egoeraren larritasuna azpimarratu dute. Ikastetxeak «ez dira jada arnagune gure hiz-

kuntzarentzat, ez behintzat lehen bezainbeste». Horregatik, «negar egiteko garaia bukatu da; ez diogu etsipenari tokirik utziko» mezua jarri dute oinarrian.

Manifestua Aiaraldeko Hezkuntza Foroaren barruan eginiko hausnarketa prozesuaren emaitza da, eta ikastetxeok sinatu dute: Amurrioko Zabaleko Ikastetxea, Zaroabe Institutua, Mendiko Eskola, Amaurre Ikastetxea eta Aresketa Ikastola; Artziniegako Arteko Gure Ama Ikastetxea; Urduñako Urduña Herri Eskola; Arrankudiaga-Zolloko Arrankudiagako Eskola; Okondoko Okondo Eskola; eta Laudion Audio Ikastola, Latorro Ikastetxea eta Areta Herri Eskola.

Testuak jasotzen duen kezka nagusia hau da: euskararen ezagutza nabarmen handitu arren hizkuntzaren erabilera ez dela handitu. Arrankudia-



Manifestuaren aurkezpen ekitaldia. AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA

«IKASTETXEAK ARNAGUNE IZATEARI UTZI DIOTE, LEHENGO MAILAN BEHINTZAT, BAINA GIZARTEA ERE IKARAGARRI ALDATU DA».

gan irakasle den Mikel Jaiok haxe azaldu digu: «Familia euskaldunetan ikusten dugu, egoera informalean erosoago aritzen dira gaztelaniaz».

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko Christian Alemanyrentzat arazoa ez da eskolara mugatzen: «Ematen du euskalduntzea lortzen ez bada hezkuntza komunitatearen arazoa dela, haren porrota, nolabait; baina egia esan, gizarte osoaren arazo eta porrota dugu».

Aresketa Ikastolako zuzendari Itxaso Ugartek ere antzeko irakurketa egin du: «Ikastetxeek arnagune izateari utzi diote, lehenengo mailan behintzat, baina gizartea ere ikaragarri aldatu da».

Manifestuak jasotzen du aisialdian, kiroletan eta kultur

arloan euskararen erabilera ez dagoela bermaturik, eta horrek eragin zuzena daukala gazteen ohituretan eta atxikimenduan. Horregatik, erakundeek eskatu diete euskara politikan urrats sendoagoak eman eta erabilerarako espazio errealeak sor ditzatela.

KONPROMISO DEKALOGOA

Horren harira, hamar puntuko konpromiso dekalogoak aurkeztu dute. Besteak beste, euskal hiztun aktiboak sortzea, euskararen soziologia lantzea, euskal kulturarekiko zaletasuna sustatzea, euskararen erabilerarako espazioak sortzea eta Euskal Herriaren errealitate curriculumean txertatzea...

Aiaraldeko eragileek Herriko ikastetxeek egindako «Gu geok» ekimena hartu dute erreferente, eta, hortik abiatuta, euren proposamena moldatu dute. Helburu argia daukate: ikastetxeetatik harago, familiak eta komunitatea ere inplikatzeko. «Eskolak bakarrik ezin du», diote testuan. Horregatik, familien eta erakundearen konpromisoa funtsezkotzat jotzen dute, eta ikasleak eurak ere hizkuntza ohituren transmisore bihurtzea proposatzen dute.

Aiaraldeko hezkuntza komunitateak mezu garbia utzi digu: kezka badago, baita aurrera egiteko borondatea ere. Orain, manifestuan jasotako konpromisoak praktikara eramatea da hurrengo urratsa.

Euskararekin

BATEGIN.



ehbildu

araba euskaraz '26

Taupadak berpiztu!

**ekainak 14
Amurrio**

zz

Vital

FUNDAZIOA

www.fundacionvital.eus